

## IX. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

### Otoitza

Jainko Jauna, beti zuzen erabakitzen duzuna,  
zure eskuetan uzten ditugu geure bizia eta izatea;  
ken gugandik kaltetarako zaiguna  
eta eman oraingo eta geroko bizitzarako zeure laguntza.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 1 Erg 8, 41-43

*Arrotzen bat etortzen denean, entzun iezaiozue.*

Erregeen liburutik

Egun haietan, Salomonek honela egin zuen otoitz jauretxean: «Entzungo dute arrotzek zure izen haundiaz, zure esku indartsuaz, zure beso zabalaz hitzegiten. Haietakoren bat, israeldar ez den herri arrotzetik etortzen denean, zure izenak eraginda, jauretxe honetan otoitz egiteko, entzun iezaiozu Zuk zerutik, zure bizilekutik, eta emaiozu arrotzari eskatzen dizuna. Honela ezagutuko zaituzte eta beldur izango dizute lurreko herri guztiak, zure herri Israelek bezala; eta jakingo dute nik eraikitako jauretxe hau zure izenari eskainia dagoela».

ERANTZUN SALMOA: Sal 116, 1. 2

R/. **Zoazte mundu guztira,  
eta hotsegin berri ona.**

Edota: **Aleluia.**

Goretsazue Jauna, atzerri guztiak,  
goraipa ezazue, herri guztiak. R/.

Sendotu baitu guregan bere maitasuna,  
eta beti-betiko dago Haren leialtasuna. R/.

II. IRAKURGAIA: Ga 1, 1-2. 6-10

*Oraindik gizakien atsegin bila banenbil,  
ez nintzateke Kristoren zerbitzari.*

San Paulo Apostoluak Galaziarrei  
egindako epistolaren hasiera

Nik, Paulok, ez gizakien aldetik, ez gizakiengatik, Jesu Kristorengandik baizik eta Hau hilen artetik biztu zuen Jaungoiko Aitarengandik apostolu naizen honek, eta nirekin dauden senide guztiek: Galaziako elizei.

Harritzen naiz, zeinen laster aldatu zareten, Kristoren graziaz deitu zintuzten Harengandik, beste ebanjelio batera; baina ez da beste ebanjeliorik, baizik eta norbaitzuk dira hor, zuek nahasten dabiltzanak, eta Kristoren Ebanjelioa goitik behera irauli nahi dutenak.

Horra bada, nahiz guk, nahiz zeruko aingeruren batek, guk hotsegin dizueguna ez den beste ebanjeliorik hotsegiten badizue, izan bedi madarikatua! Lehen esana esaten dizuet orain berriz: inork hotsegiten badizue hartu duzuen Ebanjelioa ez dena, izan bedi madarikatua!

Gizakien ederrarengatik ote nabil, ala Jaungoikoaren ederrarengatik? Gizakien atsegin bila ote nabil? Oraindik gizakien atsegin bila banenbil, ez nintzateke Kristoren zerbitzari.

EBANJELIOA: Lk 7, 1-10

**Aleluia:** Jn 3, 16

R/. Aleluia.

V/. Hain maite izan baitu Jaungoikoak mundua,  
bere Seme bakarra eman dio;  
Hari sinesten dionik inor gal ez dadin,  
baizik eta betiko bizia izan dezan. R/.

*Israelen ere ez dut aurkitu horrelako sinesmenik.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jeus, herriari hitzegin ondoren, Kafarnaunen sartu zen. Hango ehuntari batek bazeukan morroi bat oso maitea; gaizki zegoen, hiltzorian. Ehuntariak Jesusen berri entzunik, herriko zahar judutar batzuk bidali zizkion, morroia sendatzera etortzeko eskatuz.

Haiek, Jesusengana joanik, behin eta berriz eskatzen zioten: «Merezi du Zuk horrelako bat hari egitea; maite du gure herria, eta berak egin digu sinagoga».

Jesus haiekin joan zen. Eta etxetik urruti ez zegoela, ehuntariak adiskide batzuk bidali zizkion, esanez: «Jauna, ez zaitez neka; ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko. Horregatik, ez dut neure burua aintzat eduki Zuregana joateko; baina ezazu hitz bat, eta sendatuko da nire morroia. Nik ere —neu besteren menpean egon arren— baditut nire mende gudamutilak; eta bati "zoaz" esaten diot, eta joan egiten da; eta beste bati "zatoz", eta etorri egiten da; eta nire morroiari "egizu hau", eta han egiten du».

Hitz hauek entzutean, Jesus harriturik gelditu zen gizon harekin. Eta itzulirik, honela esan zion atzetik zihoakion jendeari: «Egia esan, Israelen ere ez dut aurkitu horrelako sinesmenik. Eta

bidalitakoak etxeratu zirenean, morroia sendatua aurkitu zuten.

### **Oparigaien gainekoa**

Zure bihotzean uste on dugula etorri gara, Jauna,  
geure eskaintzekin:  
zure grazia lagun ospatzen dugun sakramentuak  
garbi gaitzala.  
Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Zure Semearen gorputz-odolez janaritu gaituzunok, Jauna,  
gida gaitzazu, arren, zeure Espirituaren eragitez:  
Zu egitez eta benetan aitorturik,  
eta ez mingainez eta hitzez bakarrik,  
zeruetako erreinuan sartzea irits dezagun.  
Jesu Kristo.